

**GOBERNU JUNTAK 2016.10.18an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
LEINTZ-GATZAGA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
SABINO AZCARATE LETURIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko urriaren 18an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2016ko irailaren 27an egindako bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2016ko Aurrekontu Orokorraren jarraipena

Kontu-hartzaileak 2016ko Aurrekontu Orokorraren exekuzio egoeraren berri eman du. Gobernu Junta jakinaren gainean geratu da.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin sinatutako kontratuaren hamaikagarren aldaketa

Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin 2013ko urriaren 1ean sinatutako kontratuaren hamaikagarren aldaketa-espeditentea bideratu da. Aldaketa honen xedea honako hau da: Aretxabaletako herritarren bilketa sisteman bosgarren edukiontzia ezartzea eta hainbat zerbitzu berrantolatzea.

Aldaketa-espeditentearen barruan kontratistari eman zaion entzunaldi-epean, honek aldaketa proposamenari buruzko bere adostasuna adierazi du.

Aldaketa-proposamena ikusirik, eta aldaketa-espeditentean jasotako interes publikoko arrazoiak kontuan izanda, Gobernu Junta honek aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1. Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratuaren hamaikagarren aldaketa onartzea, aldaketa-proposamenean zehazturiko terminoetan.
2. Kontratuaren prezio berria onartzea, urtean 2.732.961,81 €-koa izango delarik gehi BEZ.
3. Behin betiko bermea berregokitzea

3.2.- Epeleko zabortegiko isurketa gelaxkaren 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrerarako detailezko proiektua idazteko, obren zuzendaritzarako, segurtasun eta osasun koordinaziorako eta ingurumen aholkularitzarako kontratazio espedientea

Epeleko zabortegiko isurketa gelaxkaren 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrerarako detailezko proiektua idazteko, obren zuzendaritzarako, segurtasun eta osasun koordinaziorako eta ingurumen aholkularitzarako prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea, euskarari dagokionez aurreko proiektua idazteko kontratazio espedientearen Baldintza Agirian jasotako testu berdina jasoz.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.3.- “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko kontratazio espedientea

Idazkariak jakinarazi du, Gobernu Juntak aurreko bileran hartutako erabakia betez, HARINSA NAVASFALT, S.A. enpresari 10 laneguneko epea eman zitziola kontratua esleitzeko zegokion dokumentazioa aurkezteko.

Aipatu enpresak ez zuenez emandako epean errekerimendua bete, azaroaren 14ko 3/2011 Lagegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuenak, 151.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, HARINSA NAVASFALT, S.A. enpresak bere proposamena erretiratu duela ulertu behar dela, dagokion dokumentazioa eskaintzen sailkapenean hurrengo dagoen lizitatuileari eskatuz, hau da, CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresari.

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

3.4.- Garbiguneetan bideozaintza sistema ezartzeko fitxategia sortzea

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. Artikuluak xedatzen du Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez baino ezingo direla sortu, aldatu edo ezabatu Administrazio Publikoen titulartasunekoak diren datu pertsonalen fitxategiak. Xedapen orokor horren edukia ere artikulua horretan dago ezarrita.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. Artikuluak Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta lege horren ezarpen eremuko fitxategiak erregistro horretan inskribatu behar direla ezartzen du.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. Artikuluak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diotela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko.

Une honetan, Mankomunitateak Garbiguneetako barne instalazioetan bideozaintza sistema bat ezarri nahi du lapurretak eta bandalismoa ekiditeko.

Hau egin ahal izateko, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Datu pertsonalen ondorengo fitxategia sortzea:

- Fitxategiaren izena: Garbiguneetako bideo-zaintza.
- Erakunde arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea.
- Erabilerak eta helburua: Garbiguneetan lapurretak eta bandalismoa ekiditeko irudiak grabatzea eta tratamendu automatizatua ematea.
- Pertsona edo talde afektatuak: Garbigune barruan dauden pertsonak, kameraren grabazio eremu barruan daudenak.
- Datuen jatorria: pertsona bera.
- Jasotze modua: grabazio-kamerek jasotako irudiak.
- Datuak jasotzeko erabilitako euskarria: grabatzeko bideo-kamerak.
- Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuta dauden izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa: identifikatzeko datuak: irudiak.
- Beste erakundeei datu lagapena: Segurtasuneko indar eta kidegoari eta organo judizialei.
- Eskubideez baliatzeko atala edo zerbitzua (sarbidea, ezereztea): Debagoieneko Mankomunitatea, Nafarroa Etorbidea, 17, 20.500 Arrasate. Tel.: 943.793399. Faxe: 943.770854. Helbide elektronikoa: debagoiena@debagoiena.eus.
- Segurtasun maila: oinarrizkoa.

2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Fitxategi hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroan inskribatzea.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat luzapen

J.S.M.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2017ko azaroaren 15era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 5-IM industri modulua erabiltzeko baimena, J.S.M. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2015eko urriaren 13ko erabaki bitartez.

I. A. A.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2017ko azaroaren 16ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-IM industri modulua erabiltzeko baimena, I.A.A. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2015eko urriaren 13ko erabaki bitartez.

N.Z.G.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2017ko urriaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-IM industri modulua erabiltzeko baimena, N.Z.G. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2014ko urriaren 23ko erabaki bitartez.

4.2.- Foru Aldundiaren 2016ko hainbat deialditan diru-laguntzak lortzeko aurkeztutako proiektuen berri ematea

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016an ateratako hainbat deialditan diru-laguntzak lortzeko Garapen Agentzia Zerbitzuak aurkeztutako proiektuen berri eman da. Honako hauek izan dira:

Deialdia: GIPUZKOAKO LEHIAKORTASUNA ETA LURRALDE KOHESIOA SUSTATZEKO PROGRAMA

- 1.- "INBEKO" (Industria Berritzaileen Komunitatea)
(Garaia Berrikuntza Gunearekin lankidetzan)
- 2.- "ANALISI NUMERIKOKO KOMUNITATEA"
(LHLrekin lankidetzan)
- 3.- "DEGOILAND" (Debagoieneko Egitura Sozio-Enpresarialentzako Ekimenak)
(Debagoieneko Mankomunitateak aurkezten du)

Deialdia: PERTSONEKIN ETA LURRALDEAREKIN KONPROMISOA HARTU DUTEN ENPRESAK SUSTATZEKO PROGRAMA

- 1.- "ITACA" (Nazioarteko Berrikuntza Ereduak Enpresa eta Tokiko Erakundeetarako)
(Mondragon Linguarekin lankidetzan)
- 2.- "JAKIBERRI"
(Mankomunitatea partaide laguntzaile bezala)

- 3.- "KOOPERATIBA FABRIKA (Ekintzailetasun soziala eta ekonomia soziala sustatzeko)"
(Mankomunitatea partaide laguntzaile bezala)

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak.

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/93.- 16/30 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HAMABI ZENTIMO (136.995,12 €).

16/94.- 16/31 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (2.299,39 €).

16/95.- 1.- J.M.K. kontratatzea irailaren 23an I.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.D.T.N. kontratatzea irailaren 23an eta 24an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

16/96.- 1.- J.O.G. kontratatzea irailaren 26tik aurrera I.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.M.K. kontratatzea irailaren 27an eta 28an Epeleko zabortegiko lan pilaketari aurre egiteko, eta urriaren 8an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J.D. L. T. N. kontratatzea irailaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, eta urriaren 6an errefusa jasotzeko zerbitzu berezia, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- V.D.C.F. kontratatzea urriaren 1ean M.S. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- M.Z.B. kontratatzea urriaren 3an Bergaran Kilometrotako zerbitzu berezia egiteko txofer-zamaketari bezala, eta urriaren 4tik aurrera zamaketari bezala edukiontziei dispositibo bat jartzeko. Lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- A.A.G. kontratatzea zamaketari bezala, urriaren 4an eta 5ean Aretxabaletako edukiontziak prestatzeko, urriaren 6an errefusa biltzeko zerbitzu berezia egiteko, eta urriaren 10etik 17ra J.E. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

7.- M.A.E. kontratatzea urriaren 6an ikasteko eta 10ean eta 11n J.A. Epeleko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

16/97.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapituluak	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.636.744,13	40.000,00	1596.744,13
GUZTIRA		1.636.744,13	40.000,00	1596.744,13

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapituluak	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	10.000,00	40.000,00	50.000,00
GUZTIRA		10.000,00	40.000,00	50.000,00

Bigarrena.- Egintza au bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

Eta espedienteen jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Lehendakariaren aginduz eta oniritziz.

16/98.- 16/32 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira ZAZPI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (7.170,37 €).

16/99.- - G.M. langileari 5.409,11 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.

16/100.- 16/33 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAU MILA LAUREHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMO (104.424,86 €).

16/101.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa (Kreditu zabalgarriak), proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
1	PERTSONAL GASTUAK	40.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	360.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		400.000,00

SARRERAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	400.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		400.000,00

Bigarrena- Egintza au bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

16/102.- Suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemen mantentzea kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekitako esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

Gipuzkoa Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren, eta hark adierazitako epean, enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko konpromisoa hartzea.

16/103.- 1.- M.S.R. kontratatzea urriaren 5etik 7ra arte J.L.M. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.D.L.T.N. kontratatzea urriaren 10etik 15era arte J.D.L.T. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J.M.K. kontratatzea urriaren 13an ontzi arinak jasotzeko zerbitzu berezia egiteko, eta urriaren 14an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, txofer-zamaketari bezala, eta urriaren 18tik 21era I.A. langilearen ordezkapena egiteko. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- M.A.E. kontratatzea urriaren 13an D.G. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Hondakin bilketa eta garraio kontratuaren ez betetzeengatik CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresari 40.000 €-ko isuna ezarriz, Mankomunitateko Gobernu Juntak hartutako erabakiaren aurka aipatu enpresak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiaren epaiaren berri eman du idazkariak. Errekurtsoa bere osotasunean ezetsi da, kontratistari kostak ordaintzearen zigorra ezarriz.
- Mikel Biainek, Gizarte Zerbitzuen eskualdeko mapa dela eta, Oñatiko Udalaren proposamena aurkeztu du. Honako hau da:

“Kontuan izanda eskualdeko maparen osaketarako plangintza eta adostasuna bilatzeak denbora eramango digula (hilabeteak) eta bitarte horretan jada udalek helburu horretarako diru asignazio “ez baldintzatu” bat jasoko dutela, benetan garrantzitsua da udaletara bideraturiko diru asignazio horiekin funts bat eratzen joatea, etorkizun hurbilean herri ezberdinek egin beharreko inbertsioak laguntzeko.”

Gaia aztertuko da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:30etan, bukatutzat eman da bilkura.